

## NAHI EZ DUGUNA FALTA DENEAN

JUAN SAN MARTIN

Plaentzian eta Eibarren, lanari, beharra (biharra) deritzaio : zeren bizitzeko beharrezkoa ez balitz inork ez luke egingo.

Bi herriok beren historian oso langileak izan badira ere, haue-  
tan ere, beste edonun bezala, inork ez du nahi lana egiterik ;  
baina, beharra... Orain, krisis garaian gaudelarik, inork nahi ez  
zuen ere falta zaigu. Ez da gauza goxoa nahi ez dena ere falta  
izatea.

Baina herri haue-  
tan falta ez dena, zera da, humorezko filo-  
safia berezia. Lehengo esaldiak oroitzuz eta egungo gertaldietatik  
berrituz, bada oraindik ere zirikadetarako ahalmenik.

Gure egunotako doinuz holakoak entzuten dira :

—Biharrakin (lanarekin) gaizki gabillaz —zion plaentziar ba-  
tek besteari. Eta bestearen erantzuna :

—Ba, gu; egin ezinik.

—Ez dok izango! Kasik guztiak dabillaz gaizki eta zuek egin ezinik?

—Bai ba; egin ezinik, ez daukagulako.

\* \* \*

—Biharriak eza, baltza dok.

—Biharrik ezak ez najok bildutzten; txarragoa dok dirurik eza.

—Hori ez dok ezer. Ni oraindik txartuago nagok.

—Txarrago? Dirurik eza baino txarragorik ezer ba ete dagok?

—Bai.

—Zer?

—Zorrak.

Baina honentzat ere, gure filosofian bada erremediorik. Askok Urkin enterratuaz ordaintzen dituzte, larrialdieri aurpegia emanaz mundu honetan bardintzera heltzen ez badira. Gainera, zintzoena izan leike zorduna. Honegatik, Toribio Etxebarriak honako esaldi hau agertzen digu *Ibiltarixanak* liburu bikainaren 185. orrialdean: “Munduko ondrauak, zorrak, zaharrak, badira ahaztu! eta barriak diranean, itxaro zahartu arte”.

\* \* \*

Plaentziako biajante batek, Gabonetako loterian, milla pezeta jokatu zituan numero batera, lagun bati esanaz: “Gorduk urteztzen bajostak, milloi mordukoa izango dok eta nik orduan barre egingo jotsat krisisari.”

—Ta, ...? Nora joango haiz bizitzera? Alikantera, Kanariasera, Balenziara, ...?

—Ni, Eibarrera.

—Eibarrera?

—Bai. Ze, Eibarren beti dabik hego-haizia.

\* \* \*

Autubatzailiak pizteko ere oso onak izaten dira krisis garaia. Elkarren berri jakin nahiez irrikitzen ibiltzen direnik aski izaten da. Baina, zaharrak berri, autubatzailien amorragarri. Lanaren gora-beherazko galdez Plaentziako ugazaba batenga joan zan bati hara nolako erantzuna eman zion:

—Esportatzen hasiak gaituk.

—Zer?

—Txirtxil (kirker) kaiolak eta tronpak.

—Kontxo, kontxo! Orduan, dibisaz kobratuko dozue, ez dok?

—Ez. Trukean, perrejilla toneladaka eta hiru puntako txorizuak.

\* \* \*

Krisis hoiak berekin dituzten estuasun eta larrialdiak. Euskarazko esaera zaharra da, “Mikaela ta Peru bitxi; haserre diranean, diru gutxi”.

Bakoitza bere zoroak darabi; baina mundua eta mundukoak, diruak.

—Zer, Kalisto? Ez daukak aurpegi onik. Ondoez itxura daukak.

—Ez, ez nabik ondo. Oraintxe natok medikuagandik.

—Da?, igarri deuk?

—Ia bai.

—Ia...?

—Bai; hamar duro najeukazen eta zortzi kendu jeustaz.

\* \* \*

Langile “Konbenioak” direla ta, goi eta behekoiei komeni zaiena ezin erabakirik zebiltzan. Bizitzako beharrak guzientzat berdinak izanik ere goikoak eta behekoak ezin berdindurik. Beste ezer ez dutenak, humorea edukitzea ez da gutxi. Eta humorea behar ere legezko eskubideen alde oihuka jardutzeko. “Berdintasunaren alde. Gora behekoak! Behera goikoak!”.

Behin, kaiñoi fabrikan konpondu eziña zebilen eta nagusi eta langileen artean “Delegado de trabajo” agertu zen, gertakizunen agiria jaso nahirik. Baina “delegado”aren aurrean ere aztabaidak sortu ziren. Eta, biharginen aldetik joan zen Arostegi delako batek, bere beroaldian:

—Zuek jauntxuok, jota garbitu egingo zaitugu!

—Ipini hori be agirian —esan zion nagusietako batek delegadoari.

Baina, Arostegik, esanez damutu gabe, laster asko erantzun zuen:

—Bai, baina jaboia kin.

Izan ere, Plaentzian ez dira zikin zaleak. Horregatik batek esaten zuen, bera oso “alabatua” zela. Bai horixe, zortzi alabaren jabe zenez.

Turkuan semeak esan zidanez, gu eibartarrok beti plaentziarren inbidiaz bizi ginela, Plaentzian plaentziarrak maioria diralako, eta Eibarren eibartarrak gutxien.

— Bai. Gure mundu hau galdua da. Orain gogoratzen naiz meza nagusi ostean izan zen elkarrizketak. Amerikanoak “Apolo” zeritzan koetea ilargiruntz bidali zutela eta itzuliko ote zen zalantzaz:

—Joan bai, joan egin dituk, baina kostako zaiiek herriz lurrera itzultzea.

—Zergatik? Orain arteko koete guziak ondo etorri bai dituk.

—Oraingoan kostako zaielako mundua billatzea. Zeren, apaiak sermoian esan duenez, mundu hau galduta omen zegok.